

Ekonomia kapitalistaren hazkundera eta krisia (1945etik gaurdaino). 6 gaia.

1) Marshall Plana. Erakunde-marko berria eta NDF-a.:

- Europar gerra ostean geratu zen egoera eta EEBB-ek honekiko jarrera.
- EEBBek Marshall plana jarri Europa bere merkatuan berriro bilakatzeko.
- Nolako Europa sortu nahi da?-> Estatuaren parte hartze nabarmenago bat defendatu nahiko dute, New Deal, kontsumismoa bultzatu...
- SESB espezioa izango da.
- Nazioarteko Diru funtsen, Munduko bankua, GATT eta ONU-ren sorrera.
- EEBB-aren helburua: Europar beste gerraterik ez piztea, SESBaren aurkako estrategia eta merkaturia handitzea.

2) Herrialde garatuaren hazkundera:

- Kapitalismoaren urrezko urteak. Hazkunde demografikoa (baby boom...), Produkzioaren hazkunde tasen igoera eta desberdintasunak herrialdeetan. II eta III. Industri iraultzen azalpena (II: elektrizitatearen eta petroleoaren ustiapena, III: informatika eta indar nuklearra).
- Taylorismoaren-fordismoaren loraldia: enpresa handi, hierarkiko eta burokratikoak nagustiko dira.
- Kontsumorako joeraren sorrera: masa-kontsumoaren gizartea azalduko da.
- Lanpostuaren egoera berria eta emigrazioa: emakumea enpleguaren munduan murgilduko zen eta enplegu osoaren sorrera emango da. Klase ertaina sortuz joango da, langilego mota berri bati hasiera emanez.
- Estatu ekonomian neurri batzuk hartzen hasiko da, eta oinarriko arlo batzuk nazionalizatu egingo dira: energia, garraioa, altzairugintza, ikatza, etab. Ongizate estatuaren sorrera emango da.
- Eredua keynestarra jarri zen, eta inoiz ezagutu ez zituen kontsumo mailak ziurtatu zizkion langileari.
- Kapitalismoaren urrezko aroaren ondorioak:

- Bizi-mailaren hobekuntza.
- Hiritartze prozesuaren azeleratzea (honekin batera tertziarizazio prozesua)
- Kapitalismoa internazionalizatu eta multinazionalen sorrera.
- Kontsumoaren igoera masiboa.
- Ingurunea eta arlo ekologikoak asko okertu.

3) Sozialismoaren eredia jarraitzen zuten herrialdeek:

Europa:

- Ekialdeko Alemania, Polonia, Hungaria, Txekoslovakia, Bulgaria, Errumania, Jugoslavia eta Albania ziren, SESBeko eredia jarraitzen zutenak.
- SESBek egin zituen estatu planak (Bosturteko Plana da artean garrantzitsuenak), lurraren erreformak, industriako erreformak (industria astuna jorratzen zuten batezere), desestalinizazioa (Nikita Khrustxevengaraia), COMECON (ELEK euskeraz) sorrera, hau da, Elkarren Laguntza Ekonomikorako Kontseilua eta beste hainbat ezaugarri osatzen zuten.
- Eszepzio moduan Jugoslavia hartu behar da, sozialismo autogestionario bat erabili baitzuen.

Asian:

- Txinaren egoerak sozialismora bultzatu zuen herrialdea eta bi partidu sortu ziren: Kuomintang nazionalista eta Txinako partidu komunistak.
- Maoren garaia: Txina ekonomikoki egonkortu eta boluntaristen sarrera arlo ekonomiko politikoan.
- Txinaren egoera azkenik: ekonomia- mundu kapitalistatik deskonektatzea eta garapen autonomo eta autozentratua ziurtatzea. (Egun ere horrela dirau)

4) Kapitalismoaren urrezko garaia amaiara:

- 1973ko hazkunde ekonomikorako joerak beheraldi ekonomiko bat eman zuen hainbat ezaugarriekin lotu zen (petrolioaren prezioen igoera adibidez) eta krisia eman zen.
- Egoera kapitalista okertzen joango da eta EEBBak ahuldu egingo da. Hirugarren munduan krisia eta arazoak egongo dira eta Ongizate estatua ere, hau kolokan jarri baitzen.

- Kriariaren ondorio batzuk: Eskari krisia, estanflazioa (geldiune ekonomikoa eta inflazioa konbinatzen zituen egoerarekin), Estatuaren oreka galduko da, crowding out efektua, ekonomi keynestarra abandonatzen joan.
- Honek guztiak beste egoera bat sortuko du European, pribatizazioa igoko da eta gastu publikoak aldiz jetxi. Malgutasun handi bat emango da arlo guztietan eta enpreseei askatasun handiago bat emango zaie. Informatikaren munduak gora egingo du eta honekin batera globalizazioa emango da (Internetekin bat).
- Merkatu ezegonkorraren sorrera: lehiakortasun handia egongo da, eta berrikuntzak eskaini nahiko dira etengabe, pertsonak gero eta gehiago kontsumi dezaten, produkzioaren dibertsifikazioa, just in time delakoa sortuko da (produktu aproposena, une aproposenean, adostutako kalitate eta prezioan eskaintzea) eta toyotismoa (langileen partehartzea, egitura horizontalagoak eta maila hierarkikoen sinplifikatzea).
- Zabor enpleguen sorrera eta Laugarren Mundua (hirietan bizi diren txiroak).
- 2007ko krisia, burbuila inmobiliarioarena: finantza arloaren globalizazio eta elkarmenpekotasunak eta emandako. Zabor kredituek eta hipotekek erangindakoak bankuengatik.

5) Kriariak herrialde sozialistetan/gainbehera

European:

- Kriariak ere ondorioak ekarri zituen European sozialismo ereduaren zuten herrialdeetan: kontsumo gutxikoa zen, demokrazia eza, industria desorekatua, aldaketa teknologiko mantsok, ekonomikoki autonomia txikia...
- SESBek sektore militarren garrantzi handia ematen zion eta ondorioz gainontzeko industria atzeratua zuen, teknologikoki ere atzerago zegoen mendebaldearekin konparatuz eta konponbide nahiak eduki arren arazo asko eduki zituzten, praktikan jarri nahi ziren planekin eta baliabide naturalekin.
- Mendebaldeak sozialismoa atakatu zuen.
- Erreforma politikoak eta ekonomikoak egin ziren, baina 1991erako COMECON funtziorik gabe geratu zen eta harekin batera SESB.
- SESBek gainbehera bizitzean herrialde sozialistak kapitalistak bilakatu ziren.

Asia:

- Txinaren eboluzioa desberdina izan zen Europako ekialdeko kasuarekin konparatuta, hartutako neurriek eta hazkunde azkarrak Txinako per capita ask hazi zuen eta azkeneko 30 urteotan Txinatar ekonomiaren irekitzearena izan da bere ezaugarriarik nagusiena.
- Munduko potentzia militar handienetakoa bihurtu da.
- Hainbat neurri hartu ditu: demografikoki, seme-alaba bakarreko legea adb.
- Ondorioak: populazioaren zahartze prozesua, maskulinitate tasa handiak, kutsadura eta hondakinen arazo larriak...Baina bestalde, potentzia handienetarikoa eta produktibitate aberats eta zabalekoa da.

6) Azpigarapenaren iraupena:

- Garai honetan deskolonizazio mugimenduarekin batera, errealitate ekonomiko berri bat azalaratuko da, herrialde txiroena, Hirugarren Munduaren sorrera alegia.
- Hainbat ideia sortzen dira herrialde azpigaratu hauen aurrean, baina orokorki herrialde garatuekin konparatzen da, beraien desberdintasunak azaleratuz.
- Bigarren Mundu Gerrak ondorioak utzi zituen herrialde hauengan.
- Indepndentzia prozesuak hasiko dira, bai Afrikan eta baita Latino Ameriketan, askapena aldarrikatuz. Honek bai politikoki eta bai ekonomikoki aldaketa batzuk ekarriko ditu.
- Bestalde herrialdeetan emandako hainbat etnia edo ustelkeria arazoek asko zaildu dute bertako ekonomi hazkundera: marjinazioaren arazoa, ustelkeriarena, herrialde kapitalista aberatsek bertan egiten dute esplotazioa, herrialdeko gatazka armatuak (Rwandako eta Kongoko kasua adbz), herrialde kolonizatuak izan zirenez, egun daukaten errealitatea...
- 2007ko krisiak gainera, aldaketak sorrarazi ditu, eta arazo asko, diru laguntzak murriztu baitira eta globalizazioak dena hartu baitu.